

PRENTSA-OHARRA

Tanttaka konpainiak *Soka* taularatuko du bihar, asteartearekin, non eskola-jazarpenari buruzko gogoeta egiten baitu

Nueva Babel konpainiaren *Enpresaria* antzezlanarekin osatuko da *Antzerki Aroa* antzerki-zikloaren udaberriko edizioaren programazioa, maiatzaren 2an

Tanttaka konpainiaren *Soka* eta Nueva Babel konpainiaren *Enpresaria* antzezlanek osatuko dute *Antzerki Aroa* euskarazko antzerki-zikloaren udaberriko edizioa. Apirilaren 10ean eta maiatzaren 2an izango dira bi emanaldiak, hurrenez hurren, 20:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan (NAE), sarrerak 8 euroan salduko dira, eta 5 euroko tarifa murriztua egongo da ikasle-taldeendako. Bi saioetarako abonamendua eskuratzeko aukera ere bada, 12 euroan. Sarrerak eskuragarri daude jada, on-line, NAEko webgunean (www.laescueladeteatro.com) eta aurrez aurre, eskolako leihatilan.

Zikloa bihar abiatuko da, asteartearekin, *Soka* antzezlanarekin, non egileak, Mikel Gurreak, hausnarketa pertsonala egiten baitu eskola-jazarpen kasuen erruari eta erantzukizunari buruz. Fernando Bernués da *Soka* antzezlaneko zuzendaria, eta Iñaki Rikarte, aktorea. Azken hori gaur goizean egon da Iruñean egin den aurkezpenean. Acrónica Producciones arduratu da argiztapenaz, soinu-bandaz eta proiektzioez, eta Edi Naudók eta Dani Bernuések osatzen dute talde teknikoa.

Antzezlanak

Victoria Eugenia antzokiak eta Tanttaka Teatroak elkarlanean ekoiztutako antzezlanak da *Soka*, Donostia 2016k eta ANTZERK3Z-ek, Bilboko Arriaga, Gasteizko Principal eta Donostiako Victoria Eugenia antzokiek sustatuta. Egilea antzezlan honen bitartez murgiltzen da lehenbiziko aldiz arte eszenikoen munduan, eta Ingalaterrako Hattie Naylor dramaturgoaren eta Danimarkako Thomas Vinterberg zinema-zuzendariaren lanak hartzen ditu oinarri.

Antzezlanak Igor soinketako irakaslearen istorioa kontatzen digu, zeinak 11 urteko mutiko baten gorpua aurkitzen baitu, gimnasioko sokatik urkatuta. Ingurukoek baztertuta, gertatutakoaren erruduntzat jotzen baitute, Igorrek erruaren eta erantzukizunaren arteko mugak marrazten diren bilaketa bati ekiten dio.





Mikel Gurreak, haren hitzen arabera, sokaren bi muturren artean ezkututzen dena desestali nahi izan du istorio honen bidez. Tira-bira bidaia horretarako erruaren bila doan soinketako irakaslea aukeratu du, erruan barrena doana, hain zuzen ere erakusteko erruaren beraren balio eskasa. Izan ere, Gurreak arabera, erruak izen-abizenak ditu, konkretua da, artxibatu eta tiradera batean sar daiteke. Errua eduki daitekeen zerbait da. Hori esaten digute. Erantzukizuna, aldiz, amorfoa da, denok harrapatzen gaitu, eta zailago egiten digu gauez loak hartzea.

Erruaren eta erantzukizunaren arteko muga horretan, hortxe kokatu nahi du egileak istorio hau, ikusleak tartean sartzeaz gain, haren hausnarketa partekatu eta nork bere ondorioak atera ditzan.

Egilea, zuzendaria eta aktorea

Mikel Gurreak (Donostia, 1985) Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen Pompeu Fabra Unibertsitatean. Bitartean, Agosto publizitate-ekoiztetxean lan egin zuen eta film labur batzuk idatzi eta zuzendu zituen. Horien artean, ondokoak nabarmentzen dira: *Primo* (2008), *Los gatos del tejado* (2009) eta *Rojo en el agua* (2010). 2011n "la Caixa" Gizarte Ekintzaren beka bat lortu zuen zuzendaritza master bat ikasteko London Film School delakoan. Garai horretan *Txoria* dokumentala eta *Chessmates* publizitate spota zuzendu zituen eta Londresko Queen Elizabeth Hall aretoan estreinatu zen Rambert Dance konpainiaren *Automatic Flesh* koreografiarako dramaturgia garatu zuen. *Foxes*, haren graduazioko filmak, hainbat sari bildu zituen, horien artean ikasle mailako fikzio onenaren saria Montrealeko *Festival des Filmes du Monde* jaialdian, eta Kimuak 2015eko katalogorako hautatu zuten. *Soka* antzerki-fikzioaren proiektua aukeratu zuten DSS2016EU Europako Kultura Hiriburu barruko *Antzerkigintza Berriak* proiekturako. Gaur egun, *Heldu (Hold)* izeneko fikziozko film luzea garatzen ari da Eva Sigurdardottir ekoizlearekin, eta EAVEk (European Audiovisual Entrepreneurs) hautaturik gertatu da.

Fernando Bernuések (Donostia, 1961) aktore, ekoizle, eszena-zuzendari eta zinema-lanak uztartzen ditu, irakasle-lanekin. Interpretazio-ikastaroak eta -prestakuntzak egin ditu honako hauekin: Alejandro Pérez Olaizola, Julián Herrero, Juan Pablo Escamillas Zilinski, Esperanza Abad, Marguerite Lyess, Maribel González, Pablo Gaztagña eta Danimarkako Odin Teatre eta Suediako Joordcircus. 1983an, Mireia Gabilondo eta Kike Díaz de Radarekin batera Tanttaka Teatroa konpainia sortu zuen, zeinak enpresa pribaturik onenari emandako Max Saria jaso baitzuen 2014an. Urte horretan bertan konpainiarendako lehen antzezlan zuzendu zuen, *Hau bai nahastea*, hartara hasiera emanez ibilbide zabal bati, non nabarmentzen baita, izandako arrakastagatik, *El florido pensil* ikuskizuna. 1993tik 1995era, Maribel Belastegirekin batera ARTESZENA – Gipuzkoako Antzerki Publikoa zuzendu zuen. 2012tik 2013ra Donostia 2016 proiektuko zuzendari kulturala izan zen, Eva Salaberriarekin batera.





Iñaki Rikarte (Gasteiz, 1981). Aktore, zuzendari eta dramaturgo gasteiztarra. Gasteizko arte eszenikoen lantegian ikasi zuen eta Interpretazioan lizentziaduna da, Madrilgo Arte Dramatikoko Goi Mailako Errege Eskolan (RESAD). Aktore gisa, hainbat konpainiaren ekoizpenetan parte hartu du (Katu Beltz, Centro Dramático Nacional, Antzerki Klasikoko Konpainia Nazionala...), baita film (*Eutsi*, 2007) eta telesailetan (*Mugaldekoak*, ETB) ere. Bost antzezlan zuzendu ditu (Gato Negro, Katu beltz, Kulunka eta Teatro Paraíso konpainiekin), eta zuzendari-laguntzaile izan da birritan Centro Dramático Nacionalean). Horrez gain, hiru antzezlan idatzi ditu (Rikartek idatzitako *Gris mate* antzezlan 2008ko MAX sarietan finalista izan zen, Ikuskizun Berririk onena modalitatean).

ANTZERKI AROA 2018. NAFARROAKO ANTZERKI ESKOLA

- Apirilak 10, asteartea. 20:00
Tantaka: *Soka*
- Maiatzak 2, asteazkena. 20:00
Nueva Babel: *Enpresaria*
- *Antzerki Aroa* euskarazko antzerki-zikloa Iruñeko Udalak eta Nafarroako Antzerki Eskolak antolatzen dute elkarlanean.
- Emanaldietarako sarrerak 8 euroan salgai daude (5 euro ikasle-taldeendako). Bi saioetarako abonamendua eskuratzeko aukera ere bada, 12 euroan.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

